

ARIKETA PRAKTIKOAREN DATA ETA ORDUAREN JAKINARAZPENA.

JAKINARAZTEN DA 2018ko urtarrilaren 16an 2 administrari hornitzeko bergarako udalak egin duen deialdiaren epaimahai kalifikatzailea bildu dela eta honako hau erabaki duela:

Deialdiari dagozkion oinarrietan jasotako lehen ariketak aurreikusten dituen ariketa teorikoa eta praktikoa honako egun hauetan egingo direla

—Lehen ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzailea.

1. Proba **teorikoa**. I. Eranskinean jasotako gaiekin edo/eta lanpostuaren eginkizun eta funtzioekin zerikusia duten galderei erantzun beharko zaie. Epaimahaiak erabakiko du izangaiek erantzun beharrekoa test modukoa izango den edo ez, eta nola puntuatuko den.

Proba honetan, gehienez ere, **10 puntu** lortu ahal izango dira eta proba hau gainditu ahal izateko derrigorrezkoa izango da **5 puntu** ateratzea.

2018ko urtarrilaren 30ean goizeko 9:00etan, udal pilotalekuan

2. Proba **praktikoa**: Lanpostuen eginkizunekin zerikusia du(t)en proba(k) egin beharko dituzte.

Proba honetan, gehienez ere, **20 puntu** lortu ahal izango dira, eta proba hau gainditu ahal izateko derrigorrezkoa izango da **10 puntu** ateratzea.

2018ko urtarrilaren 30ean goizeko 11:00etan, udal pilotalekuan.

Guzti hau 8. oinarrian jasotakoak emandako aukerari jarraituz erabaki duelarik:

“ZORTZIGARRENA. AZTERKETEN FASEAREN JARDUNBIDEA.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabaki dezake ariketak edo/eta frogak 7. oinarrian adierazitako hurrenkeraz edo beste hurrenkera batekin egitea, bai eta egun berean probetako bat baino gehiago egitea ere; kasu horretan, aurreko proba gaindituta dutenen probak bakarrik ebaluatuko ditu.”

Eta izangai guztion jakinean jartzen da.

Bergara, 2018ko urtarrilaren 16a.

IDAZKARIAK



NOTIFICACIÓN DE FECHA Y HORA DEL EJERCICIO PRÁCTICO.

SE NOTIFICA que el 16 de enero de 2018 se ha reunido el tribunal calificador de la convocatoria realizada por el Ayuntamiento de Bergara para cubrir 2 plazas de administrativo, y ha decidido lo siguiente:

Los primeros ejercicios teórico y práctico previstos en las bases de la convocatoria se realizarán en la siguiente fecha.

- Primer ejercicio: De carácter obligatorio y eliminatorio.

1. Prueba **teórica**. Deberán responder a preguntas relacionadas con los temas del anexo I y/o con tareas y funciones del puesto a cubrir. El tribunal decidirá si el examen será tipo test o no, así como la forma de puntuar.

En esta prueba, como máximo, se obtendrán **10 puntos** y para superar la prueba será necesario obtener **5 puntos**.

El 30 de enero de 2018, a las 9:00 de la mañana, en el frontón municipal.

2. Prueba **práctica**: Deberán realizar pruebas que tienen que ver con las funciones del puesto a cubrir.

En esta prueba, como máximo, se obtendrán **20 puntos** y para superar la prueba será necesario obtener **10 puntos**.

El 30 de enero de 2018, a las 11:00 de la mañana, en el frontón municipal.

Todo esto lo han decidido según lo que se recoge en la octava base:

“OCTAVA. PROCEDIMIENTO DE LA FASE DE EXÁMENES.

El tribunal calificador puede decidir respetar o no el orden de los exámenes y/o pruebas recogidas en la séptima base, así como realizar más de una prueba en un mismo día; en ese caso, sólo evaluará las pruebas de los aspirantes que hayan superado las pruebas anteriores.”

Y se comunica a todos y todas las aspirantes.

Bergara, 16 de enero de 2018.

LA SECRETARIA



BERGARAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BERGARA
SECRETARIA
LOAZKARITZA